

NIRE MAITASUNAREN ARDATZA

Agurne Oronoz

Leitza, 13 urte

Zu zara, gauean negarrez nagoenean,
kontsolatzen nauen izarra.

Zugan pentsatzean,
mundu harrigarri batean
murgilduta sentitzen zaiz.

Zure arimaren muxu bat,
bihotz barruraino ailegatzen zait,
zugan, inoiz sentitu ez dudan
sentimendu bat sentituz.

Gauero zerura begiratzen jartzen naiz
nire etorkizunaz galdetzen,
eta izar guztiak taldekatzen dira,
gu bion izenekin, bihotz bat osatuz.

Mundu hau, basamortu bilakatuko litzateke,
baldin eta zure maitasuna,
nirearekin elkartuta ez balego.

Zugandik urruntzea,
kale ilun batean,
deabruarekin topatzea bezalakoa izango litzateke,
ez bainuke inon lortuko hainbesteko maitasunik.

*Agurnek,
hainbeste maite duen mutilari eskeinia.*